## 2019KO AZAROAREN 18KO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO EZ-OHIKO BILKURAREN AKTA

## ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION EXTRAORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 18 DE NOVIEMBRE DEL 2019

**Akta zenbakia: 16**/2019
**Bilera eguna**: 2019-11-18
**Bilera mota:** ez-ohikoa
**Deialdia:** Lehenengoa
**Ordua:** 09:05-09:17
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Acta nº: 16**/2019
**Fecha**: 18-11-2019
**Tipo de reunión**: extraordinaria
**Convocatoria:** Primera
**Hora:** 09:05-09:17
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Bertaratutakoak:**

**Alkatea:**
Mikel Pagola Tolosa

**Zinegotziak:**
Jorge Segurado Iriondo
Luke Goñi Martínez
Agurtzane Mercader Ubillos
Ainara de Miguel Berasategui

**Idazkaria:**
Mateo Habibi Astigarraga López

**Reunidos:**

**Alcalde:**
Mikel Pagola Tolosa

**Concejales:**
Jorge Segurado Iriondo
Luke Goñi Martínez
Agurtzane Mercader Ubillos
Ainara de Miguel Berasategui

**Secretario:**
Mateo Habibi Astigarraga López

Urnietan, 2019ko azaroaren 18ean, goian adierazitako zinegotzi jaun-andreak bildu dira, 9:05ean, Mikel Pagola Tolosa alkatea lehendakari dutela, ez-ohiko bilera egiteko.

En la villa de Urnieta a 18 de noviembre del 2019, siendo las 9:05 horas se reúnen los concejales arriba relacionados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde Mikel Pagola Tolosa, al objeto de celebrar sesión extraordinaria.

Gehiengo absolutuaren quoruma gainditu delarik eta lehendakariak bilkura hasi duelarik, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeari ekin diote.

Superado el quórum de la mayoría absoluta y abierta la sesión por la Presidencia, se procede al desarrollo de los puntos del orden del día.

### GAI ZERRENDA

**1.- 2019ko urriaren 17ko bileren aktak onartzea bidezkoa bada.**

**2.- Babesgabetasun arrisku maila arinean aurkitu daitezkeen adingabeen familientzako eskuhartze psikosozialerako eta/edo sozio-hezitzailerako zerbitzua (ESP. 2019-URN-015)" kontratatzeko pleguen onarpena.**

**3.- Urnietako Udalaren eta Dendaberri Elkartearen arteko Lankidetza Hitzarmenaren aldaketaren onarpena, "Osasun Bideak".**

### ORDEN DEL DÍA

**1.- Aprobar, si procede, el acta de la sesión del 17 de octubre del 2019.**

**2.- Aprobación de los pliegos para la licitación del Servicio de intervención socioeducativa y/o psicosocial, para familias con menores en situación de riesgo de Urnieta (EXP 2019-URN-015).**

**3.- Aprobación de la modificación del convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Urnieta y Dendaberri Elkartea, "Osasun Bideak".**

**1.- 2019ko urriaren 17ko bileraren akta onartzea bidezkoa bada.**

2019ko urriaren 17ko akta irakurri ondoren, ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez honako hau

**ERABAKITZEN DU**

**Lehenengoa.-** 2019ko urriaren 17ko akta onartzea.

**1.- Aprobar, si procede, el acta de la sesión celebrada el 17 de octubre del 2019.**

Tras la lectura del acta del 17 de octubre de 2019 y realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local por unanimidad adopta el siguiente

**ACUERDO**

**Primero.-** Aprobar el acta del 17 de octubre de 2019.

**2.- Babesgabetasun arrisku maila arinean aurkitu daitezkeen adingabeen familientzako eskuhartze psikosozialerako eta/edo sozio-hezitzailerako zerbitzua (ESP. 2019-URN-015)" kontratatzeko pleguen onarpena.**

**Aurrekariak:**

Gizartekintza departamentuak "Babesgabetasun arrisku maila arinean aurkitu daitezken adingabeen familientzako eskuhartze psikosozialerako eta sozio-hezitzailerako zerbitzua (ESP. 2019-URN-015)" kontratatzeko espedienteari hasiera eman dio eta memoria justifikagarria, baliabide ezaren txostena, loteetan ez banatzea justifikatzeko txostena eta kontratazio hau arautuko duten oinarri teknikoak idatzi ditu.

Era berean sail sustatzailearekin koordinatuta, baliabide elektronikoak ez erabiltzeari buruzko txostena idatzi da eta Administrazio Baldintza Berezien Plegua prestatu da, eta udal Idazkariak espedientea informatu du.

**Araudi aplikagarria:**

Legedi aplikagarria. Izaera administratiboko espediente arrunta daukagu, eta horren esleipena prozedura irekiz egin nahi da eta araudi hau zaio aplikagarri: 7/1985 Legearen 88 artikulua, Toki Araubideko Oinarriei buruzkoa, eta 2017ko SPKLko 116 eta 117 artikuluak, espedientearen prestakuntzaren inguruan, eta esleipen prozeduraren inguruan, 2017ko SPKLko 156 eta 158 artikuluek xedatutakoari jarraitu beharko zaio, prozedura irekiaren inguruan.

**2.- Aprobación de los pliegos para la licitación del Servicio de intervención socioeducativa y/o psicosocial, para familias con menores en situación de riesgo de Urnieta (EXP 2019-URN-015).**

**Antecedentes:**

El Departamento de Servicios Sociales ha iniciado el expediente para la contratación de la "Servicio de intervención socioeducativa y/o psicosocial, para familias con menores en situación de riesgo de Urnieta (EXP. 2019-URN-015)" ha elaborado la Memoria justificativa, el Informe de insuficiencia de medios, el Informe de la no división en lotes y los Pliegos Técnicos.

Asimismo, se ha redactado el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, en coordinación con el Departamento promotor, el Informe de justificación sobre la no utilización de medios electrónicos y el expediente ha sido informado por el Secretario municipal.

**Normativa aplicable:**

Estamos ante el expediente ordinario de un contrato de naturaleza administrativa, cuya adjudicación se pretende por el procedimiento abierto y al que le es de aplicación la siguiente normativa: art. 88 de la Ley 7/1985, de Bases de Régimen Local y artículos 116 y 117, de la LCSP 2017, en cuanto a la preparación del expediente, y en cuanto al procedimiento de adjudicación habrá que estar a lo dispuesto en los artículos 156 a 158 de la LCSP, relativo al procedimiento abierto.

Ikusita Tokiko Gobernu Batzarrari dagokiola espediente hau ebaztea 2019ko ekainaren 25eko 2019/618 zenbakidun eskuduntza eskuordetze alkatetza Dekretuaren arabera.

Visto que corresponde a la Junta de Gobierno Local resolver el expediente conforme a lo que dispone el Decreto de Alcaldía nº 2019/618 de 25 de junio de 2019 de delegación de atribuciones en la Junta de Gobierno Local.

Ikusita 2019ko azaroaren 12an Herritargoko batzorde informatzaileak egindako aldeko irizpena.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Ciudadanía el 12 de noviembre del 2019.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak aho bateko adostasunarekin honako hau

Realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local por unanimidad adopta el siguiente

**ERABAKITZEN DU**

**ACUERDO**

**Lehenengoa.-** Onartzea kontratazio espedientea eta, bestetik, esleipen prozedurari HASIERA EMATEA, prozedura irekiaren bidez kalitate-prezio erlazio onenean, hainbat esleipen irizpiderekin eta izapidetze arrunt bidez BABESGABETASUN ARRISKU MAILA ARINEAN AURKITU DAITEZKEN ADINGABEEN FAMILIENTZAKO ESKUHARTZE PSIKOSOZIALERAKO ETA SOZIO-HEZITZAILERAKO ZERBITZUA (ESP. 2019-URN-015) kontratatzeko.

**Primero**. - Aprobar el expediente de contratación del SERVICIO DE INTERVENCIÓN SOCIOEDUCATIVA Y/O PSICOSOCIAL, PARA FAMILIAS CON MENORES EN SITUACIÓN DE RIESGO DE URNIETA (EXP. 2019-URN-015) por procedimiento abierto, en base a la mejor relación calidad-precio, con varios criterios de adjudicación y tramitación ordinaria convocando su licitación.

**Bigarrena.-** Urteko 55.000 eurotako gastua baimentzea (gehi BEZa), aurrekontuaren 1 0600.227.231.80.08 2019 partidaren kargura 2019ko ekitaldikoa, eta 2020, 2021erako honen baliokidea.

**Segundo.-** Autorizar un gasto anual de 55.000 € con cargo a la partida 1 0600.227.231.80.08 2019 o equivalente de los presupuestos de los ejercicios 2020 y 2021.

**Hirugarrena.-** BABESGABETASUN ARRISKU MAILA ARINEAN AURKITU DAITEZKEN ADINGABEEN FAMILIENTZAKO ESKUHARTZE PSIKOSOZIALERAKO ETA SOZIO-HEZITZAILERAKO ZERBITZUA (ESP. 2019-URN-015), prozedura irekiaren bidez kalitate-prezio erlazio onenean, hainbat esleipen irizpiderekin eta izapidetze arrunt bidez kontratatzeko arautuko duten Oinarri Teknikoen (II. Eranskina) eta Administrazio Baldintza Berezien Pleguak (I. eranskina) onartzea.

**Tercero.-** Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares (Anexo I) y de Prescripciones Técnicas (Anexo II) que regirán el contrato de servicios de SERVICIO DE INTERVENCIÓN SOCIOEDUCATIVA Y/O PSICOSOCIAL, PARA FAMILIAS CON MENORES EN SITUACIÓN DE RIESGO DE URNIETA (EXP. 2019-URN-015), por procedimiento abierto, en base a la mejor relación calidad-precio, con varios criterios de adjudicación.

**Laugarrena.-** Kontratazioaren iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzea, interesdunek 15 egun naturaleko epearen barruan beren proposamenak aurkeztu ahal izan ditzaten.

**Cuarto.-** Publicar en el Perfil de contratante el anuncio de licitación, para que durante el plazo de 15 días naturales los interesados puedan presentar las proposiciones que estimen pertinentes.

**Bosgarrena.-** Kontratzailearen profilean, memoria justifikagarria, baliabide ezaren txostena eta kontratazio hau arautuko duten oinarriak argitaratzea.

**Quinto.-** Publicar la memoria justificativa, el informe de insuficiencia de medios y los pliegos de contratación en el Perfil de Contratante.

**3.- Urnietako Udalaren eta Dendaberri Elkartearen arteko Lankidetza Hitzarmenaren aldaketaren onarpena, "Osasun Bideak".**

**3.- Aprobación de la modificación del convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Urnieta y Dendaberri Elkartea, "Osasun Bideak".**

**Aurrekariak:**
DENDABERRI ELKARTEAren sorrerako helburua Urnietan adinekoen elkargune eta erreferentzia bat sortzea izan zen, gizartean txertaturik jarraitzeko eta modu aktiboan parte hartzeko.

2019an bere gain hartu du OSASUN BIDEAK programaren garapenaren ardura ordura arte udalak antolatu izan duena.

OSASUN BIDEAK herritarrak astean behin, aire librean eta kutsu informalean paseo bat eman eta luzapen batzuk burututa gauzatzen den jarduera bat da, bertaratutako edozein herritarrek parte hartzeko aukera duelarik.

Ikusirik orain arte udalak antolatu eta ordaindutako programa izan dela, batik bat parte hartzen dutenak Dendaberri Elkartekoak direla eta helburua dinamizatzaile bat gidatuta ariketa fisikoa sustatzea dela.

**Antecedentes:**
El objetivo fundacional de DENDABERRI ELKARTEA fue crear un punto de encuentro y referencia de las personas mayores en Urnieta, para que puedan seguir insertadas en la sociedad y a participar activamente.

En 2019 ha asumido la responsabilidad del desarrollo del programa OSASUN BIDEAK, organizado hasta entonces por el Ayuntamiento.

OSASUN BIDEAK es una actividad abierta que se realiza una vez a la semana, consta de un paseo al aire libre y una serie de estiramientos,

Visto que hasta la fecha ha sido un programa organizado y sufragado por el Ayuntamiento, en el cual principalmente los participantes pertenecen a Dendaberri Elkartea, cuyo objetivo es impulsar y fomentar el ejercicio físico guiado por un/a dinamizador/a.

**Legeria:**

Toki erregimeneko oinarrien arautzaile den apirilaren 2ko 7/1985 legearen eta Euskadiko Toki Erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 legearen arabera kultura eta kirola sustatzea Udal eskumenak dira.

Azaroaren 8ko 9/2017 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 6.2 artikuluak bere aplikazio eremutik kanpo uzten ditu *"sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuari lotutako pertsona fisiko edo juridikoekin egindako hitzarmenak, betiere horien helburua ez bada jasotzen Lege honetan edo arau administratibo berezietan araututako kontratuetan".*

**Legislación:**

La ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las bases de régimen local y la ley 2/2016 de 7 de abril, de instituciones locales de Euskadi, atribuyen a los ayuntamientos competencias para la promoción de la cultura y el deporte.

El artículo 6.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, excluye del ámbito de aplicación de la misma a *"los convenios que celebren las entidades del sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales".*

Ikusita Tokiko Gobernu Batzarrari dagokiola espediente hau ebaztea 2019ko ekainaren 25eko 2019/618 zenbakidun eskuduntza eskuordetze alkatetza Dekretuaren arabera.

Visto que corresponde a la Junta de Gobierno Local resolver el expediente conforme a lo que dispone el Decreto de Alcaldía nº 2019/618 de 25 de junio de 2019 de delegación de atribuciones en la Junta de Gobierno Local.

Ikusita 2019ko azaroaren 12koa Herritargoko batzorde informatzaileak egindako aldeko irizpena.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Ciudadanía el 12 de noviembre del 2019.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak aho bateko adostasunarekin honako hau

Realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local por unanimidad adopta el siguiente

**ERABAKITZEN DU**

**ACUERDO**

**Lehena** Dendaberri Elkartearekin hitzarmenaren aldaketa onartzea. (III. Eranskina)

**Primero. -** Aprobar la modificación del convenio con Dendaberri Elkartea. (Anexo III).

**Bigarrena**.- Alkate jaunari baimena ematea hitzarmen horren aldaketa sinatzeko.

**Segundo. -** Autorizar al Sr. Alcalde para la firma de la modificación de dicho convenio.

**Hirugarrena**.- Dendaberri Elkarteak urtean zehar antolatzen dituen ekintzetarako egun jasotzen dituen 21.000,00 euroz gain, beste 3.000,00 euro diru-laguntza jasotzea, 1 0600.481.337.10.02 2019 (566) aurrekontu partidaren kargura, hitzarmenean zehaztutako moduan ordainduko dela adieraziz.

**Tercero. -** Otorgar una subvención de 3.000 euros, adicional a los 21.000,00 euros que actualmente percibe Dendaberri Elkartea, con cargo a la partida presupuestaria 1 0600.481.337.10.02 2019 (566), indicando que se abonará en la forma establecida en el convenio.

**Laugarrena.-** Erabakiaren berri elkarteari eta Sustapen eta Kontu-hartzailetza sailei helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

**Cuarto.-** Notificar este acuerdo a la asociación y trasladar el mismo a los departamentos de Promoción e Intervención a los efectos oportunos.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak amaitutzat eman du Tokiko Gobernu Batzar hau, eta nik, Urnietako idazkariak, hala egiaztatu dut, Alkatearen oniritziarekin.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el Alcalde da por finalizada la presente Junta de Gobierno y se levanta la sesión, de lo que yo, Secretario de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Sin.: Mateo Habibi Astigarraga López

Idazkaria

Sin.: Mikel Pagola Tolosa

Alkate-lehendakaria

***I. eranskina / I. anexo***

Babesgabetasun arrisku maila arinean aurkitu daitezken adingabeen familientzako eskuhartze psikosozialerako eta sozio-hezitzailerako zerbitzua (ESP. 2019-URN-015) zerbitzuaren lizitazioa, Administrazio Baldintza Berezien Pleguak.

Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares que regirán la contratación del Servicio de intervención socioeducativa y/o psicosocial, para familias con menores en situación de riesgo de Urnieta (EXP. 2019-URN-015).

***II. eranskina / II. Anexo***

Babesgabetasun arrisku maila arinean aurkitu daitezken adingabeen familientzako eskuhartze psikosozialerako eta sozio-hezitzailerako zerbitzua (ESP. 2019-URN-015) zerbitzuaren lizitaziorako, Plegu teknikoak.

Pliegos técnicos que regirán la contratación del Servicio de intervención socioeducativa y/o psicosocial, para familias con menores en situación de riesgo de Urnieta (EXP. 2019-URN-015).

***III. eranskina / III. Anexo***

**URNIETAKO UDALA ETA DENDABERRI ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENAREN ALDAKETA**

Urnieta, 2019ko azaroak xxx

**BILDURIK**

Batetik, MIKEL PAGOLA TOLOSA jauna, Urnietako alkatea, helbidea: San Joan, 5; eta IFK: P-2007700-D.

Bestetik, [redacted] jauna, adinduna eta Nortasun Agiria [redacted] duena.

**PARTE-HARTZAILEAK**

MIKEL PAGOLA TOLOSA jauna, Urnietako Udalaren izen eta ordezkaritzan (San Joan, 5; IFK: P2007700D), alkate gisa.

[redacted] DENDABERRI Elkartearen izenean eta ordezkari gisa. DENDA BERRI Elkartea Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistroan inskribaturik dago. Bere helbidea San juan 42 da DENDA BERRI Elkartearen ahaldun gisa hartu du parte eta, ondorioz, bera da elkartearen legezko ordezkaria, 29/1989 Dekretuaren 29. artikuluarekin bat etorriz.

Bi alderdiek dokumentu hau egiteko gaitasuna aitortu diote elkarri eta xede horrekin honako hau,

**ADIERAZTEN DUTE**

Urnietako Udalak eta Dendaberri Elkartea, honek urtean zehar antolatutako hainbat ekitaldiren bidez, herritarrak gizartean

**MODIFICACION DEL CONVENIO ENTRE URNIETAKO UDALA-DENDABERRI ELKARTEA**

Urnieta, xxx de noviembre de 2019

**REUNIDOS**

De una parte, Don MIKEL PAGOLA TOLOSA, Alcalde de Urnieta con domicilio en calle San Juan 5 y con NIF P-2007700-D.

De otra parte, Don [redacted] mayor de edad, y con Documento Nacional de Identidad [redacted]

**INTERVIENEN**

Don MIKEL PAGOLA TOLOSA en nombre y representación del Ayuntamiento de Urnieta, con domicilio en San Juan 5, y con CIF P2007700D, interviene en su condición de alcalde.

Don [redacted] en nombre y representación del Asociación DENDABERRI, entidad inscrita en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco. Su domicilio está en la calle San Juan 42 interviene en su condición de presidente, y, en consecuencia, como representante legal de la asociación, al amparo del artículo 29 del Decreto 29/1989.

Se reconocen mutuamente capacidad para otorgar este documento y a tal efecto,

**CLAUSULAS**

El Ayuntamiento de Urnieta y Dendaberri Elkartea, a través de diversos actos organizados a lo largo del año, firmaron un

txertaturik jarraitzeko eta modu aktiboan parte hartzeko helburuarekin 2017ko apirilaren 27an hitzarmena siñatu zuten.

convenio el 27 de abril de 2017 con el objetivo de mantener a la ciudadanía insertada en la sociedad y participar activamente.

Dendaberri Elkartearen eskaera dela eta, 2019ko azaroaren xko ohiko bilkuran Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen urtean zehar antolatzen dituen ekintzetarako egun jasotzen dituen 21.000,00 euroz gain beste 3.000,00 euroko diru-laguntza jasotzea, guztira 24.000,00 euro.

A petición de Dendaberri Elkartea, la Junta de Gobierno Local, en sesión ordinaria celebrada el día x de noviembre de 2019, acordó conceder una subvención adicional a los 21.000,00 euros que actualmente recibe para las actividades que organiza a lo largo del año, por un importe total de 24.000,00 euros.

Horrenbestez, bi alderdiek hitzarmena aldatzea adosten dute jarraian adierazten den moduan

En consecuencia, ambas partes acuerdan modificar el Convenio en los términos que se exponen a continuación.

**AKORDIOA**

Siñatutako hitzarmeneko 2 artikuluan jasotzen den diru-laguntza 24.000,00 eurotakoa izatea.

**ACUERDO**

Que la subvención contemplada en el artículo 2 del convenio afectado sea de 24.000,00 euros.

Horrela jasota geratu dadin, eta ados daudela adierazteko, honako akordio hau siñatzen dute, adierazitako lekuan eta datan.

Y para que así conste, y en prueba de conformidad, firman el presente acuerdo en el lugar y fecha indicados.

Urnietako Udaleko Alkate Lehendakaria
MIKEL PAGOLA TOLOSA

Dendaberri Elkarteko Lehendakaria
[redacted]

Fede ematen dut
MATEO ASTIGARRAGA LOPEZ
(Urnietako Udaleko Idazkaria)